

II. Eranskina- Merezimenduen baremoa

a) **Merezimendu profesionalak: gehienez ere 60 puntu.**

Administrazio publikoetan deialdia argitaratzen den egunera arte egindako zerbitzuak baloratuko dira, gehienez 60 punturekin, puntuazio honen arabera:

a.1) Iruñeko Udalean eta haren erakunde autonomoetan, deialdiaren xedeko **lanpostu berean**, aldi baterako egindako zerbitzuak: 3 puntu, zerbitzu-urte oso bakoitzeko.

a.2) Iruñeko Udalean eta eta haren erakunde autonomoetan, **beste lanpostu batzuetan** egindako zerbitzuak: 0,5 puntu, zerbitzu-urte oso bakoitzeko.

a.3) Beste administrazio publiko batzuetan, **lanpostu berean** egindako zerbitzuak: 1 puntu, zerbitzu-urte oso bakoitzeko.

a.1, a.2 eta a.3 apartatueterako oharra:

1. Urteen kopurua osoa ez bada, zerbitzuan egindako aldiari proportzioan dagokion puntuazioa esleituko zaio.
2. a) apartatu honi dagokion puntuazioa gehienez ere 60 puntukoa izanen da.
3. Zerbitzuak baloratuko dira zerbitzu bakoitzaren hasiera egunetik amaierara arte, egindako lanaldiaren ehunekoa edozein dela ere.
4. Ez dira baloratuko deialdia argitaratu ondoren egindako zerbitzuak.
5. Izangaia prestakuntzarako zerbitzu berezietan edo jarduneko zerbitzu bereziko egoeran egon den aldiak benetan bete duen lanpostuan egindako zerbitzuak balira bezala kontatuko dira.
6. Izangaia zerbitzu berezietan egon bada beste arrazoi batzuegatik, edo eszedentzia berezian egon bada, edo unitate organiko bateko buru edo zuzendari lanetan, aldi horietako zerbitzuak kontatzeko, egoera horietan sartzean zuen lanpostuan egin izan balitu bezala kontatuko dira.
7. Aurreko azpiapartatuetan emandako puntuazioak bateraezinak izanen dira epe berari dagozkionean. Halakoetan, kasu bakoitzean handiena den puntuazioa emanen da.

b) Beste merezimendu batzuk: gehienez ere 40 puntu:

b.1) Iruñeko Udalean eta haren erakunde autonomoetan lanpostu berean sartzeko azken prozesua lanposturik eskuratu gabe gainditu izana: **20 puntu**.

b.2) Beste titulazio akademiko edo prestakuntza batzuk:

b.2.1 Maila bereko edo goragoko titulazio ofizialak eta master tituluak baloratuko dira, deialdian sartzeko titulazioa baloratu gabe. 5 puntu titulazio ofizial bakoitzeko, gehienez ere 2 titulu: **gehienez ere 10 puntu**.

b.2.2 Deialdiaren xedeko lanpostuarekin zerikusia duten prestakuntza-ekintzetan parte hartu izana baloratuko da, 10 ordu edo gehiagoko iraupena izan badute eta 2010eko urtarrilaren 1a baino geroago egin badira. 2 puntu prestakuntza-ekintza bakoitzeko, gehienez ere 5 prestakuntza: **gehienez ere 10 puntu**.

Argibide-oharra b2 apartatuari buruz: Titulu eta prestakuntza-ekintza guztiek aurkezten den lanpostuarekin lotuta egon beharko dute, zeharkako prestakuntza-ekintzak barne, hala nola informatika, berdintasuna edo prebentzioa.

b.2.3 Hizkuntzak

Ingelesa, frantsesa, alemana eta euskara: Ingelesa, frantsesa edo alemana jakitea, Europar Batasuneko laneko hizkuntzak diren aldetik, baita euskara jakitea ere, baloratuko da, plantilla organikoaren arabera lanpostuan aritzeko hizkuntza horiek jakitea nahitaezkoa ez bada: 0,50 puntu gehienez haietako bakoitzagatik.

Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren C1 mailaren pareko jakite-maila egiaztatzen duen titulu edo ziurtagiria duenari aurreko apartatuetan hizkuntza bakoitzarentzat ezarritako baloraziorik handiena emanen zaio.

Titulu edo ziurtagiri hori izan ezean, Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren A1 mailaren pareko titulu edo ziurtagiri bat izanez gero, gehienez eman daitekeen puntuazioaren 1/5 jasoko da; A2 mailaren parekoa izanez gero, 2/5; B1 mailaren parekoa izanez gero, 3/5; eta, B2 mailaren parekoa izanez gero, 4/5.